



# IKAROA

## *Polyommatus icarus*

### TAMAINA

3 zm

### ITXURA

Antena marrakatuak dituen pinpirin ttipi hau desberdina da sexuaren arabera.

Arrak hegalen goiko alde urdina du, emeak aldiz, marroia puntu laranjekin.

Hegalen azpiak kolore marroia du, zuriz inguratutako puntu beltz lerroekin eta tatxa laranjekin.

Arra >



< Emea



## NOLA IDENTIFIKATU?



### NOIZ?

- > Martxo hondarretik azaroa arte
- > Goizargian eta ilunabarrean

### NON?

- > Ingurune irekietan
- > Ingurune erdi itzaltsuetan
- > Larreetan

! Beste Ikaro espezie batzuekin nahas daiteke.

## AURKEZPENA

### BIZI ESPERANTZA

Urte bat (negua kontutan hartuz)

### ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Papilionazeo loreen zukua eta nektarra jaten du. Ugalketaren ondotik, emeak landare batzuen loreen gainean arraultzak jartzen ditu (usobelarra, hirusta, itxiokorra...). Arraultzatik larba bat ateratzen da, negua pasako duena. Ondoko udaberrian, beldarrak bere metamorfosiarekin segituko du, kuskua bat ehuntzeko. Kuskuan krisalida bilakatuko da, eta gero pinpirina. Urtean belaunaldi bat, bi edo hiru egon daitezke.

## BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Ikaroaren ugaritasuna nabarmen jaitsi da azken urteotan.

Gainbehera hori, batez ere, pinpirinei beren biziklo osoa egitea eragozten dieten maizko belar pikatzeek eragiten diete, baita espezieak bilatzen dituen belarkien urritasunak ere.

Hori dela eta, zenbait ekintzek espeziea laguntzen dute:

- > Habitata ahalik eta gehien zaintzea eta indartzea.
- > Belar pikatze berantiarrak egitea.
- > Belar zerrenda bat edo gehiago pikatu gabe uztea eta esku hartze partzial bat lehenestea.